



GOBERNU BATZARRA

2024.11.26

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregi

Bertaratutako zinegotziak:
Kristina Pelaez Errazkin
Ander Figuerido Zubiria
Aitor Agirresarobe Murgi

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita lauko azaroaren hogeita seian, 09:00etan, lehenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Estitxu Kortejarena Ugarte
Goiuri Ezeiza Arandia

Idazkaria:
Begoña Garmendia Vazquez

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

1. Akta hau onartzea: 2024ko azaroaren 19koa.
2. Onartzea Tolosako Euskal Herria plazako 1-A eraikinean eraisket lanei eta birgaitzeko obrei dagozkien abalak itzultzea.
3. Dekretu hauen berri ematea:
2024/2599 Dekretua: 2024/46 faktura zerrendak.
2024/2610 Dekretua: 2024/47 faktura zerrendak.

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2024KO AZAROAREN 19KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.



2. ONARTZEA TOLOSAKO EUSKAL HERRIA PLAZAKO 1-A ERAIKINEAN ERAISKETA-LANEI ETA BIRGAITZEKO OBREI DAGOZKIEN ABALAK ITZULTZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Espedienteko aurrekariak:

- Tolosako Udalak Construcciones Amenabar SArI esleitu zizkion Euskalherria plazako 1-A eraikina (*TOPIC eraikina*) eraisteko eta eraberritzeko lanak. Hala erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2007ko irailaren 10eko bilkuran. Kontratazio horren ondoriozko betebeharrak bermatzeko, 2007ko irailaren 29an 199.198,19 euroko abala jarri zuen.
- Agindutako obrak egin ondoren, 2010eko martxoaren 26an obrak jaso ziren, salbuespen batekin.
- 2010eko abenduaren 28an aipatutako kontratauren aldaketa onartu zen Alkate Dekretuz. Hala, kontratu berria izenpetu zen 2010eko abenduaren 30ean Tolosako Udala eta Construcciones Amneabar, Saren artean. 2011ko otsailaren 2an, abal berria jarri zen 41.307,99 €-ko zenbatekoagatik, Tolosako Euskalherria Plazako 1-A eraikina (*txotxongiloen zentro egonkorra*) eraisteko eta eraberritzeko obrak aldatzearen ondoriozko betebeharrei erantzuteko.
- Gaur egun, abalak ez dira ez indargabetu ez itzuli.
- Obrak jaso zirenetik (2010-3-26), Imanol Agirre arkitektoaren 2018ko otsailaren 1eko txostenean aipatutako 2017ko urtarrilaren 10eko idazkia arte, EZ dago idatzizko errekerimendurik.
- 2018ko otsailaren 1ean, Imanol Agirre arkitektoak txostena egin zuen, eta agerian jarri zituen egiteke zeuden konponketak, 2010eko harrera-aktan eta 2017ko urtarrilean eraikitzaileari bidalitako idazkian jada nabarmendu zirenen ildotik.
- Txostena egin ondoren, Alkatetzaren zenbait ebazpen eman ziren: 2018ko otsailaren 7ko 0303 zenbakiko Dekretua, uztailaren 15eko 2019/1221 Dekretua, 2019ko irailaren 17ko 1487 Dekretua eta 2020ko otsailaren 13ko 315 Dekretua. Ebazpen horietan akatsak zuzentzeko eskatzen zen, eta 452.464 abala exekutatzeko prozedura hastea ere erabaki zen. Gaur egun, arazoak ez dira konpondu, eta abalak jarrita daude oraindik, baina ez dira indargabetu.
- 2019/1221 Dekretuari erantzunez, 2019ko abuztuaren 8an, Construcciones Amenabar SAK idazki bat aurkeztu zuen Udalean, eta adierazi zuen udal-



jakinarazpen bat jaso zuela 2019ko uztailaren 29an, eta Topic fatxadako hezetasunak zuzentzeko eskatu zela.

- 2019ko irailaren 17ko 1487 zenbakiko Dekretuaren bidez, Construcciones Amenabar SAri jakinarazi zitzaion egindako lanak ez zirela nahikoa, eta hilabeteko epea eman zitzaion arazolari irtenbidea emateko proposamen bat aurkez zezan. Era berean, ohartarazten zaio, eskatutakoa betetzen ez bada, behin-behineko izaeraz bermea exekutatu dela eta obrak egiteko TEUSAREN aurrekontua bidali zitzaion; aurrekontua 47.919,81 eurokoa zen.
- Espedientean jasotzen den azken ebazpena Alkatezaren 315 zenbakiko Dekretua da, 2020ko otsailaren 13koa, non adierazten baita ez direla betetzen TOPIC eraikinaren fatxadako hezetasun-arazoak konpontzeko lanak.
- Dekretu horri erantzunez, Construcciones Amenabar S.L.k alegazioak aurkeztu zituen 2020ko otsailaren 19an, eta abalak exekutatzearen aurka agertuz, abalak itzuli egin behar direla ulertuta, berme-epea igaro delako eta obra entregatu zenetik 10 urte baino gehiago igaro direlako.
- 2020ko azaroaren 30ean Udalak Kontratutako Araudi SLP enpresako Nekane Azarola abokatuak txosten juridikoa idatzi zuen, Construcciones Amenabar SAK Udalarari emandako abalak egikaritzeko aukeraren azterketa juridikoa, hain zuzen ere.
- Ondoren, 2022ko ekainaren 13an Erik Martin Boticariok, Construcciones Amenabar SA-ren izenean, berriro eskatu zuen aipatu bermeak itzultzeko.
- 2023ko ekainaren 2an, Zinegotzi Delegatuak 1389 zk.dun dekretua egin du Topic eraikineko hezetasun arazoak konpontzeko helburuarekin Pizar-Nort, SL enpresa kontratatuzeko Topic eraikineko zinkezk estalkia berritzeko

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Gaiari buruz behean izenpetzen duen teknikariak egindako txostena:

II.1.- Xedea

Txosten honen xedea da honakoa aztertzea: aipatutako obra-kontratua eta honen aldaketa betetzeko erantzunkizunari aurre egiteko jarritako abalak itzultzeko eskaera.



II.2.- Jarritako bermeak

Eskatzen diren abalaren datuak honakoak dira:

1.- Tolosako Euskal Herria plazako 1-A eraikinaren eraisketa- eta birgaitze-obrak.

Construcciones Amenabar, S.A.
Abalaren zenbakia: 452.464
Abalaren zenbatekoa: 199.198,19 €
Alta eguna: 2007/09/20

2.- Tolosako Euskal Herria plazako 1-A eraikinaren eraisketa- eta birgaitze-obren Aldaketa

Construcciones Amenabar, S.A.
Abalaren zenbakia: 472.674
Abalaren zenbatekoa: 41.307,99 €
Alta eguna: 2011/01/28

II.3.- Azterketa

Aurrekarietan aipatu bezala, Tolosako Udalak Araudi SLP enpresako Nekane Azarola abokatuari txosten juridikoa eskatu zion, Construcciones Amenabar SAK Udalarari emandako abalak egikaritzeko aukeraren azterketa juridikoa egin zezan.

Txosten horretan honakoa ondorioztatzen da:

“1.- Obrak hezetasun-arazoekin jaso ziren, hilabeteko epea emanez akatsak konpontzeko.

2.- Udal arkitektoak 2018ko otsailaren 1eko txostenean adierazitakoa oinarri hartuta, urteetan zehar bilerak eta elkarrizketak egin dira Construcciones Amenabar SArekin, arazoa konpontzeko borondatea duela adieraziz, nahiz eta azkenean ez dute eskatutakoa bete.

3.- Bilerak eta elkarrizketak egiten ziren bitartean, berme-epeak aurrera zihoazen.

4.- 2017. urtera arte Construcciones Amenabar SArri ez zaio errekerimendu formalik egin, eta honek jarduketaren bat egin zuen, idatziz utziz udalak eskatutakoa bete zuela.

5.- HAMAR urtez ez dira jarritako abalak exekutatu; horiek, segurtasun juridikoagatik, Construcciones Amenabarrek emandako bermearen bi urteko epean exekutatu behar ziren, edo HIRU urteko epean, LOE betez.

Azaldutakoa ikusita, eta berme-epea amaituta, ez da bidezkoa Construcciones Amenabar SAK jarritako abalak exekututzea, Tolosako Euskalherria plazako 1-A eraikina (TOPIC eraikina) eraisteko eta eraberritzeko obrei dagokienez, eta itzultzea egokitzat jotzen da.”



Ondorioz, aipatutako bi abalak bueltatu litezkeela ondorioztatu behar da.

II.4.- Organo eskuduna

Kontratazio organoari dagokio kontratistak jarritako behin betiko bermea itzultzea (9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarria). Tolosako Udalari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari dagokio, hortaz, organo horri dagokio jarritako behin betiko bermea itzultzeko onspena ematea

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Construcciones Amenabar SA-ri Tolosako EH plazako 1-A eraikinean eraisketa- eta birgaitze-obrak egiteko kontratua eta honen aldaketari zegozkion obren kontratua betetzeko erantzunkizunari aurre egiteko jarritako abalak itzultzea.

Abalen datuak honakoak dira:

1.- Tolosako Euskal Herria plazako 1-A eraikinaren eraisketa- eta birgaitze-obrak.

Construcciones Amenabar, S.A.
Abalaren zenbakia: 452.464
Abalaren zenbatekoa: 199.198,19 €
Alta eguna: 2007/09/20

2.- Tolosako Euskal Herria plazako 1-A eraikinaren eraisketa- eta birgaitze-obren Aldaketa

Construcciones Amenabar, S.A.
Abalaren zenbakia: 472.674
Abalaren zenbatekoa: 41.307,99 €
Alta eguna: 2011/01/28



BIGARRENA.- Erabaki hau jakinaraztea Construcciones Amenabar, S.A.-ri eta kontuhartzaitza departamentuari berri ematea.

3. DEKRETU HONEN BERRI EMATEA:

2024/2599 Dekretua: 2024/46 faktura zerrendak

2024KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

46. zenbaki duena, 36.615,01 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek



EBAZTEN DU

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

46. zenbaki duena, 36.615,01 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.



2024/2610 Dekretua: 2024/47 faktura zerrendak

2024KFAK0002

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontuhartzaitza eta Diruzaintza Saileko Zinegotzi Delegatuak, Estitxu Kortejarena Ugartek, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1695 Alkatetza Dekretuak, 2023ko ekainaren 30ekoak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2024ko honako faktura-zerrenda hau:

47. zenbaki duena, 374.748,52 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, Zinegotzi Delegatu honek

EBAZTEN DU

LEHENEA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

47. zenbaki duena, 374.748,52 eurokoa.



TOLOSAKO
UDALA

2024IGBA0028

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Ebazpen honek bide administratiboari amaiera ematen dio. Beraren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Auzibidera jo aurretik, interesdunak aukera izango du birjarpen errekurtsioa aurkezteko Alkateari hilabete bateko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik kontaktzen hasita, hala xedatuta baitago Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan.

Bestela, birjarpen errekurtsioaren orde, edo errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesatuak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Errekurtsio hau, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztuko da.

Agindu eta izenpetzen duena Ogasun eta Finantza Administrazio Saileko zinegotzi delegatuak, eta nik, Idazkari naizen honek, ziurtatua.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARIA

Estitxu Kortejarena Ugarte

Begoña Garmendia Vazquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IGBA0028-2024/11/26ko akta/2024/11/26ko akta ()